

Haserre solas



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA



ANTTON OLARIAGA

Nola geldiarazi haserre?" Hori da aste honetako *Le un hebdo* aldizkari frantsesaren izenburu nagusia. Hain zuzen ere, Frantzia gertatu azken gertakariei so egiten badiegu, ohargarri da jendarte osoa pil-pilean dagoela. Ez bakarrik hiritarrak ados ez direlako gobernuak eta lehendakariak hartu erabakiekin, baina bereziki frogatzen dutelako ez dela solastatzeko espaziorik goi mailako agintarien eta popularen artean. Manatzaileek deliberatzen dute herritarren beharren eta arranguren axolarik gabe, edo berdin haien kontra. Xeheak bere asea, kezka eta oinazea oihuka dezake, klima, etorkinak, erretreta, lan baldintzak, edozein gaiz, elkor daude ttattardun nagusiak.

Egia erran, halere, ez hain elkor: adierazpen askatasunaren berme dira, giza eskubideen herrian, eta beren eginbeharra da, preseski, dena belarri egotea, oinarrizko libertate absolutu horren zaintzeko.

Eta hara non Hezkuntza Nazionalako buruek hitz "larri" eta "bortitzak" azpimarratu dituzten bi irakasle funtzionarioen kontu sozialetan. Biak filosofiako irakasleak dira lizeotan. Ez diete lizunkeriarik igorri adin txikiko ikasleei, ez

dute irain publikorik zabaldu, ez. Behin eta berriz errepikatu dituzte ideia lanjerosak, ahoan bilorik gabe. Batak, Franklin Nyamsik, salatu du *Françafrique* edo Frantziaren politika Afrikan, azpimarratuz horretan bustiak diren eliteen ustelkeria. Delitu izugarri horrengatik, martxoaren 14tik aitzina, hiru hilabetez debekatua izan zaio irakastea, eta hilabete saria eskuratzea. Ironikoena da, *Jeune Afrique* webguneko kazetariak dioten bezala, erroak Senegalen dituen Pap Ndiaye ministroak duela zigorra bultzatu.

Bigarren filosofiako irakaslea René Chiche da. Sindikatuta ere bada, Action et démocratie-n. Hark ere ele jasangaitzak izan omen ditu: gobernuaren osasun politika gaitzetsi du eta bereziki agerian ezarri du irakaskuntza egoeraren gainbehera ikastetxeetan (irakasle gero eta gehiagok bere buruaz beste egiten duela, langileak ez direla seguritatean ari lanean, ikasleek ez dituztela erdiesten merezi luketen jakitatea eta hausnartzeko tresna intelektualak...). Historiako irakasle izana den Ndiaye ministroak deklaratu du, René Chiche aipatzean, horrelako erranak ez daitezkeela nehondik ere adierazpen askatasunaren baitan sar. Baieztatu du hiru

hilabetez irakastea debekatua izanen zaiola Chicheri, apiril erditsutik goiti, eta epe horretan ez duela hilabete saririk hunkituko.

Zigor harrigarri horiek 2016ko Blanquer legearen lehen artikuluan oinarrituak dira, zoinek eskatzen dien agente publikoei eredugarri izan daitezen, besteak beste, isilduz irakaskuntza erakundeko barne ibilmoldeak.

Zintzotasuna eta egiaren bilaketa irakasten dutenak baztertzaren diren herrian –hain ikasleak klaserik gabe utziz urte hondarreko azterketen bezperan!–, ez daiteke demokrazia eta askatasunik izan, ez minoritateentzat, ez gehiengoarentzat. Hara irakaskuntza publikoaren funtsa bera zalantzan ezarria dela denen bistan, langileei mututasuna inposatua zaien ber.

Hortaz, gure herri heinean segi dezagun mintza guneak antolatzen. Joan den maiatzaren 4an, Joseba Sarrionandia gonbidatua zuen Baigorriko irakurle taldeak, eta etorkizunerako helburu gisa hori du borobildu: akort ala –sustut!– ez akort, eta epaiketa moralizatzaileetatik at, elekteta hartzeko espazioak gara ditzagun, jendarte sanoa eraikitzeko eta belaunaldi gazteak errespetuz hezteko. ●